

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Dozenaka lagun elkartu ditu martxoaren 8ak

Prebentzio-neurriak hartuta, kaleak bete ziren / 2-6



**Diaporama, ostiral  
honetan Basteron,  
Amaia Armendariz  
bidaia-riaren  
eskutik / 2**



**"Pausoz pauso"  
Berdintasunaren  
aldeko hamargarren  
edizioa, ikuskizun  
bilakatuta / 3**



**Elkarretaratzea  
eta manifestazioa,  
martxoaren 8ko  
hitzordu bikoitza  
Urnietan / 5**



**Zuena elkarteak  
antolatutako  
Flamenko ikuskizuna,  
ostiral honetan  
Basteron / 6**



**Uxue Botas  
andoaindarra,  
'Larrugorritan'  
telesailako  
eragilea / 10-11**



**Trasteleku eta  
gordelekuen  
alokairua Urnietan**

TRASTELEKUAK

**>>44€**

2 m<sup>2</sup> / BEZa barne

GORDELEKUAK

**>>97€**

5 m<sup>2</sup> / BEZa barne



ASKOTARIKO TAMAINA  
ETA AZALERAK



BIDEKOZANTZA  
24 ORDU



SARBIDE  
ETENGABEA



**605713127**

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA  
Bulegoa: Muebles Itarbe  
**barn.eus**





Ekitaldiaren amaieran ikuskizuneko partaide guztiak agertu ziren taulagainera, Udal ordezkarekin batera. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Arazoen aurrean, irtenbideak. Eta atzera egin beharrean, hobe bi pauso aurrera ematea. Horrelako zerbait pentsatu zuen "Pausoz pauso" ekitaldiko talde eragileak, eta herrikideek gozatzeko ikuskizun ederra antolatu zuen. Oparia izan zen, martxoaren 6an eskaini zutena. Urte hauetan guztietan egindakoa ez baita gutxi izan: Ahalduntze ariketa kolektiboa izan da, egunerokoan eredu diren herrikide askoren lana lehen lerrora ekarri.

Hamar urtetik hona eginda-koari begira jarri eta, doinu eta irudiz lagunduta, emozioz beteriko saioa antolatu zuten. Aurreko bederatzi edizioetan aitormena jaso duten emakumeak gogoan hartu zituzten. Horieta-ko batzuk, gainera, dagoeneko ez daude gure artean.

Andoaingo atzoko eta gaurko emakumeen irudiek protagonismo handia hartu zuten ekitaldian zehar. Eta musikariei eta kantariei esker, saioa borobila izan zen. Aipatzekoa da haien guztien lana: Malen Otxoa gitarra-jolea eta Garazi Jauregi eta Rebeka Gestoso kantariak; Myriam Ulanga eta Udal musika eskolako ikasleak; Olagain Udal txistulari elkarteko kideak...

**Aro berria, 2022an**

Talde eragileak iragarri duenez, "Pausoz pauso" ekimenak beselako formatua edukiko du datorren urtetik aurrera.

# Pauso eta urrats berrien bila

Berdintasunaren aldeko "Pausoz pauso" ekimenak aro bat bete du, larunbatean amaitu zena. Oparoa izan da, emakume guztiak aitortzea helburu zuena. 2022tik aurrera pauso eta urrats berriak urratuko dituzte, berdintasunaren bidean




"Pausoz pauso" ekimeneko talde eragileak esker oneko oparitxoa jaso zuen, Bastero Kulturgunearen kanpoaldean. AIURRI

## Ekitaldi sorta zabala

**Martxoak 11, osteguna**

Antzezlanak: "Txanogorritxotik otso emera".

19:00 Bastero, auditorioa.



Amaia Armendariz. AIURRI

**Martxoak 12, ostirala**

Diaporama: "Emakume gazte bidaiariak". Hizlaria: Amaia Armendariz.

18:00, Bastero.

"Un grito de mujer" flamenko ikuskizuna.

19:00, Bastero.

**Martxoak 13, larunbata**

Txapa tailerra.

10:00-13:00, Ludoteka.

**Martxoak 14, igandea**

Haur antzerkia:

"Kotondarrak".

17:00, Bastero.

**Martxoak 16, asteartea**

Zinema: "La boda de Rosa".

18:30, Bastero.

**Martxoaren 13ra arte**

Erakusketa: "Emakumeak Andoainen" erakusketa.

17:00-20:00 Ludoteka.

**Martxoaren 20ra arte**

Erakusketa: "Algodoneraren emakumeak", Fanny Alonsoren eskutik.

18:30, Bastero.

**Martxoaren 26ra arte**

Erakusketa: Emakume famatuak. Gazte Lokala.





Jone Aldaz. AIURRI



Mari Karmen Txapartegi eta Tere Lopez de Munain. AIURRI



Marta Diez. AIURRI

# Aurreko urteetan omendu zituztenen iritzia

Poza, zoriona, emozioa... Horixe izan zen ikusle gehienen sentimendua "Pausoz Pauso" ekitaldi berezia amaitutakoan. Aurreko edizioetan protagonista izan ziren emakumeren iritzia jasota, ikuskizunaren antolatzaileek bete-betean asmatu zuten

## Xabier Lasa ANDOAIN

Ekitaldia amaituta, lau ikusleren iritzia jaso genuen.

## Jone Aldaz

Memoria historikoaren alde egin-dako lanagatik omendu zuten, 2012an: "Zoragarria izan da ekitaldia guzti-guztia. Gurekin bizi diren emakumeek ez ezik azken urtetan joan zaizkigunek hartu dute protagonismoa ekitaldian, eta holakoetan konturatzen zara denak bihotzean daramatzagula. Batez ere hildakoen irudiak ager-

tu direnean, mezu baikorra transmititu dit une horrek; emakume garen aldetik aurrera kementsu egiteko eskatu digutela sentitu dut. Bizi-pozaren txertoa hartu izan banu bezala irten naiz Basterotik".

## Mari Karmen Txapartegi eta Tere Lopez de Munain.

Mari Karmen 2020an omendu zuten: "Hasi eta bukatu, oso-oso polita izan da ekitaldia. Hunkigarria. Ikusi da lana gogotik egin dutela ekitaldiko antola-

tzaileek. Andoaingo emakumez beteriko erretratu zaharrak pantailan agertzen hasi direnean, Goiburu auzoko hainbat ezagun identifikatzen hasi gara biok: familiakoak, bizilagunak, adiskideak... Batez ere San Esteban ermitan lehenbizi auzolanean jardun genuenean eta gero mahai luzean hamaiketako egin genuenean ateratako argazkiak, horiexekin aritu gara jendea antzematen, adi-adi jarrita; denekin ez dugu asmatu, jakina, irudi asko baitziren, eta norma-


la da azkar samar agertu eta ezkutatzea. Argazkiez gain, abeslariekin eta Xabier Leteren "Amaren bularra" eta beste kantekin izugarri gozatu dugu".

## Marta Diez

2018an omendu zuten, minbizia- ren aurkako borrokan erakutsi- tako adoreagatik: "Oso hunkigarria eta sentikorra izan da ekitaldia. Bertan bildu garen guztiok emozioatzeko eta bihoz- bera jartzeko modukoa izan da, prestatu digutena. Ekitaldia pittin bat motz geratu zaigula esango nuke, baina jakina, hain goxo sentiarazten zaituzten gau- zek gehiago iraun dezaten nahi izaten dugu... Ekitaldian zehar, momentu batzuetan, eskaini dituzten irudi eta bideoei esker, 2018an izendatua izan nintzen eguneko oroitzapenak berres- kuratu ditut; izan ere, betiko gordetzen den gertakizun horie- takoa izan baitzen. Senideak eta lagunak oso gertu sentitu nituen, ni bezainbat poztu ziren".

## Saioa ikusgai

Aiurri.eus webgunean, bideoak atalean, martxoaren 6ko saioa ia bere osotasunean ikus daiteke.



Irene Amondarain. AIURRI

## Algodonerako emakumeen erakusketa, Basteron ikusgai

Martxoaren 20ra arte zabalik dago Andoaingo lantegi ezagunari lotutako erakusketa

## Xabier Lasa ANDOAIN

"Erakusketak Andoaingo Etxe- berrietan zegoen La Algodonera lantegian lan egin zuten emaku- meak omentzea du helburu. Oso baldintza gogorretan lan egin arren, bizitasunez, alaitasunez

eta eskuzabaltasunez betetako emakumeak izan ziren, eta ahaz- turatik berreskuratu nahi genituzke". Hitz horiek esanez aur- keztu zuten erakusketa, Baste- roko erakusketa gelan egin zuten irekiera ekitaldian. Hainbat

kulturgilek hartu du parte era- kusketaren antolakuntzan, Fanny Alonso diseinatzaileak gidatuta: Anne Galarraga kazetaria, Nerea Bengoetxea kantaria; Maialen Porroy ilustratzailea, Nerea Tuduri poeta, Dabid Argindar argazkilaria eta Begoña Babi- leiro idazlea. Azken honek "Al- godoneraren emakumeak. Mu- jeres del Algodon" liburua idatzi du. Erakusketa datorren mar- txoaren 20ra arte zabalik egongo da. Erakusketaz gozatzeko aste bakarra dago, beraz.



Bastero Kulturguneko erakusketa-gelan ikusgai izango da, datozen egunetan. AIURRI



# Ez dago mobilizazioa etengo duen izurriterik

Zuhurtziaz jokatzeko deia luzatu zuten agintariek, eta manifestariek erantzukizunez erantzun zuten. Segurtasun eta prebentzio neurriak betez, Andoaingo kaleetan feminismoaren aldeko oihuak nagusitu ziren martxoaren 8an



Agustin Leitza kalean behera manifestariak, protokoloak agintzen duen distantzia soziala errespetatuz. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Azken urteetan hitzordu jendetsurik bada, hori martxoaren 8koa da. Aurreko urteetan greba deitu izan zuten, eta tokian tokiko nahiz hiriburuetako manifestazioak jendetsuak izatera iritsi ziren. 2021ean, izurriteak

ez ditu atzean utzi berdintasunaren aldeko oihuak. Beste behin ere, feminismoak dozenaka lagun elkartu zituen Goikoplazan. Banderak moreak eta ostadarrarenak ikus zitezkeen manifestazioaren hasieran, eta atzetik segika herrikide ugari. Nafarroa plaza

ondotik igaro eta gero, Agustin Leitza kaletik Kale Nagusira hurbildu ziren. Zumea plazara ino, "Dena aldatu, sistema arrakalatu" lelopean adin guztietako herrikideak elkarrekin joan ziren. Asanbladak eta Trakak antolatu zuten manifestazioa.



Pankartaren atzean, Andoaingo Asanblada Feministako eta Traka gazte taldeko kideak. AIURRI

## Manifestazio jendetsua



Goikoplazan hasi eta Zumea plazan amaitu zen. AIURRI

**Jendetsua** Azken urteotan martxoaren 8koa izan ohi da tokian tokiko mobilizazio jendetsuena. Izurriteak eragina izan badu ere, martxoaren 8an Andoaingo dozenaka lagun irten zen manifestazioan.



Adin guztietako herrikideak hurbildu ziren manifestaziora. AIURRI

**Zabala** Nerabe, gazte, heldu eta adineko... Herrikide ugari hurbildu zen manifestaziora. Aldaketarako gogo nabari da, urtez urte. Gauzak aldatzeko eta hobetzeko eskaerak nagusitzen dira, martxoaren 8aren edota azaroaren 25aren egunaren ingurumarian.



Zumea plazan irakurri zuten adierazpena. AIURRI

**Adierazpena** Manifestazioaren amaieran, Andoaingo Asanblada Feministako bi kidek "Dena aldatu, sistema arrakalatu" manifestua irakurri zuten. Aurten, nagusiki, kapitalismoari eta arrazakeriari aurre egiteko mezuak zabaldu dira.





Kalez kale ibili ondoren, manifestua irakurri zuten San Juan plazan. Argazki-bilduma aiurri.eus gunean ikusgai dago. AIURRI

# Hamaika herritar manifestazioan

Ezusteko atsegina utzi zuen iragan astelehenak Urnietan, martxoaren 8ko manifestazioaren harira. Izan ere, dozenaka lagun –haur, gazte eta heldu– hurreratu zen San Juan plazan hasi eta amaitu zen hitzordura

## Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Arratsaldeko 17:30ean hasi zuten manifestazioa, "Dena aldatu, sistema arrakalatu", zioen lelo nagusiak. Hala, herriari bira eman zioten, eta plazaz-plaza egin zuten protesta. Urnietako etxe guztietara ailegatu ziren beren oihiak, kazero- len soinuak lagunduta. Aurreko urteekin alderatuta, askoz urnietar gehiago izan ziren manifestazioan.

Hasitako leku berean bukatu zen mobilizazioa, ordubate beranduago. Mikrofona eskuan, martxoaren 8rako prestatutako manifestua irakurri zuten: Euskal Herriko mugimendu feministaren diskurtsoa oinarri hartuta bota zituzten aldarrikapenak, baina, era berean, Urnietako herriak bizi duen egoera egokiturik. Txalo-zaparrada artean, bertso batekin eman zioten amaiera manifestazioari.

## Bertsoa

*Azken urtea denentzat zaila izan dela ezin ukatu. Zaintza lanaren beharra zaigu mahai gainera bistaratu. Emakumeak iten gaituzte bortxatu eta akatu. Halere Udalak berdintasuna ez du aintzakotzat hartu. Kolektiboki elkartu eta feminismoan antolatu. Dena aldatu beharra dago sistema arrakalatu.*



Jendetza elkartu zen martxoaren 8ko manifestazioan. AIURRI

## Amaierako irakurketa

Urtebete igaro da 2020ak utzitako azken elkarretaratze jendetsuenetik, alegia, joan den urteko martxoaren 8tik. Harrezkero, Covid19ak sistemaren barneko ustelak elikatu ditu, baita hainbat dimentsiotako krisiak azaleratu ere; lehertu dena ez baita osasun-krisia soilik.

Herriarrazongizatearen gainetik, Gobernuetatik kapitala lehenetsi da, berriz ere. Mugak eta kaleak militarizatu dituzte, abusu polizial eta instituzional arrazistak jasan ditugu, ehunka kide kaleratuak izan dira edo arriskuan daude eta milaka emakume lan merkatua utzi behar izan dute zaintza lanengatik. Gainera, krisialdiak eragin zuzena izan du eremu feminizatuetan, bereziki egoera irregularrean dauden emakume langileen eremuan. Urnietako ere egoera horren lekuko izan da.

Udalak ez ditu herriak alor honetan dituen arazoak identifikatzen, ez eta horiei aurre egiteko baliabideak bermatzen ere. Berdintasun-txosten hutsaletan gelditzen da bere ahalegin osoa, eta, ondorioz, ez dio gaiari merezi duen lekua aitortzen. Gainera, ezin dugu aipatu gabe utzi gure herrian, gaur gaurkoz, ez dugula berdintasun-teknikaririk. Ahaleginak ahalegin, oraindik ez dugu ulertzen zer dela-eta ondorioztatu zuten figura horren beharrik jada ez zuela gure herriak. Izan ere, jakin badakigu inguruko herrietan bezalaxe Urnietan ere erasoak ematen direla, indarkeria agerikoenetik hasi eta zapalkuntza ikusezineraino.

Sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista arrakalatzeko feminismoan antolatu eta kolektiboki borrokan jarraitu behar dugu.

Euskal Herri feminista, antikapitalista eta antiarrazista eraikitza gero. Gora borroka feminista!

## Elkarretaratzea

Udalak elkarretaratzea deitu zuen, eta astelehen iluntzean hainbat herritar hurbildu ziren. Eudelek egin duen adierazpena bere egin du Urnietako Udalak. Besteak beste, honakoa dio: "Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zeharlerroa izateko erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak sendotzea eta babestea".



UDALA



Urnietako  
udala



# Flamenko ikuskizun solidarioa

**ROSA GONZALEZ** ZUENA ELKARTEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

Ehundik gora bazkide ditu Zuenen emakumeen topaguneak. Pozik daude, urtebeteko etenaldiaren ostean berriro ere ekitaldiak antolatzen hasteko aukera badutelako



Zuenako zuzendaritza batzordeko kideak. Zutik: Anabel Maiz, Puri Molano eta Vicent Perez. Eserita: Beni Garcia, Araceli Paniagua eta Rosa Gonzalez. Batzordeko lau kide falta dira: Viki Marcos, Maite Lopetegi, Marijose Urrestarazu eta Begoña Blanco. AIURRI

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Ostiralerako flamenko ikuskizun solidarioa prestatu dute, eta dagoeneko ohiko ikastaroei berrekitzeko aukera aztertzen ari dira. Beti ere, Aste Santua igaro eta gero.

**Dena prest flamenko jaialdirako?**

Bai, egia esanda; ezingo gara kexatu! Iaz ezin izan ospatu denok dakigun arrazoiengatik, eta pozgarria da aurtengoarekin aurrera egin izana. Segurtasuna neurri guztiekin egingo da, eta Basteroko aforo erdia betetzeko moduan. Aurreko edizioetan bezala, El duende de la Sole dantza taldeak eta Zuenak elkarlanean antolatutako ikuskizuna izango da.

**Zer esan dazakezu ostiralean ohol-tzara igoko diren artisten gainean?**

El duende de la Sole dantza taldeko zuzendaria den Soledad Ruzek hartzen du jaialdiko parte gonbidatzen ditu kantari eta dantzariak. Ederki asko ezagutzen du flamenkoaren mundu hori, eta Andoainen lehen mai-

lako jaialdia antolatzea izan da bere lehentasuna beti.

**Hirugarrengo edizioa da ostiralean ospatuko dena. Esan daiteke Andoainen badagoea flamenkorako zaletasuna?**

Baietz esango nuke, jendea mor-doa eta gogoz azaldu izan da jaialdira aurreko bi saioretan, eta horrexegatik jarraitzea erabaki izan da. Zuenen elkartearen sebillanak dantza taldeak ikasturte amaieran egin izan dituen emankizunetan ere, beti nabarmendu izan da atzean badagoea publikoa fidela. Andoaindarrei gonbitea luzatuko nieke, Basterora azal daitezten eta ordu eta erdiko ikuskizun bikainarekin goza dezaten.

**Zuenen elkarteak nola ari da bizitzen izurrite egoera?**

Gaizki, gainerako elkarte eta herritarren antzera. 2019-2020 ikasturterako antolatuta geneuzkan ikastaroak (yoga, pilates, jostuna, sebillanak...) normaltasunez egin ahal izan ziren iazko martxoan osasun larrial-

dia dekretatu zen arte. Martxoaren 8aren inguruko "Pausoz pauso" ekitaldian parte hartu genuen, eta baita ere bazkideen bazkari arrakastatsuan. Hortik aurrera, deus gutxi. Irailean urteko batzarra antolatu genuen, eta ikusita egoera ez zela horren larria, berriro ere ikastaroekin aurrera egitea erabaki genuen, segurtasunezko protokoloak zorrotz bete eta gero, jakina. Bazkideak ikastaroekin hasteko desiatzen zeuden, eta ekin genion bideari, pozez txoratzen ekin ere! Baina hirugarren asterako, hor non hasten den zabaltzen ditxosozko bigarren olatua... Gaur arte etenda egon da elkartearen mugimendu guztia!

**Aurrera begira zer erabaki duzue?**

Izugarri animatu gaitu "Pausoz pauso" ekitaldiaren antolaketan parte hartu izanak eta flamenko jaialdia aurrera eraman izanak. Bestalde, badirudi ona dela pandemiak azken asteetan daraman eboluzioa. Gauzak horrela, zuzendaritza batzordeki-

deak baloratzen ari gara Aste Santua igaro ostean ohiko ikastaroen eskaintza egitea bazkideei. Jendea galdetu eta galdetu ari zaigu, eta gizartearen sumatzen da denok ere gogo bizia daukagula lehengo bizimodura itzultzeko. Egia esan, Zuenen elkarteak funtzio sozial handia betetzen du emakumeen topagunea izateko ez ezik, baita euren kultur formakuntzan sakontzeko, eta beharbada pandemiak horretaz jabetzea ekarri du.

**Arrats elkartearen aldeko flamenko ikuskizuna**

Bazterketa eta gizarte-zaurgarritasuneko egoeratan bizi ziren herritarrei baliabide soziala eta juridikoa eskaintzen duen irabazi asmorik gabeko elkarte da Arrats. Elkarte horrek aburuz, faktore askoren ondorioz sor daitezke aipatu egoerak; buruko gaitzak, familia-baldintzak, generoa, gizarte-ingurunea... Era berean, asko eta asko izan daitezke bazterketa eta estigmatizazioa jasan dezaketen kolektiboak: etxerik gabeko pertsonak, drogaren mende daudenak, prostituzioan dihardutenak, emigranteak, indarkeria matxista jasandakoak...

Elkarteak hainbat egitasmo eta programa zehatz garatu ditu, kolektibo horiek guztiek bizi dituzten bazterketa-egoera desberdinei aurre egiteko.

**"ZUENA ELKARTEAK FUNTZIO SOZIAL HANDIA BETETZEN DU EMAKUMEEN ARTEAN"**



Soledad Ruz.

**"Emakumearen oihua" ikuskizuna**

**Jaialdiko musikari eta dantzariak:**

- Agujetas Chico kantari eta gitarra jolea eta Beatriz Morales dantzaria.
- Kelian Jimenez & Soledad Ruz Konpainia Flamenkoa. Oholtza gainean eskarmentu handiko bi dantzariak Flamenko puru eta abangoardista egiten dute. Estilo ugari jorrotzen dituzte elkarrekin: "Martinete"ak, "siguriya"ak, "soleares"ak...
- Aritz Salamanca euskal dantzaria.
- Garazi Esnaola teklista eta Jose Pasaia kantaria.
- Analia Bellydance eskola dantza.
- El duende de la Sole dantza taldea.

**Martxoak 12, ostirala**  
19:00. 10 euro. Bastero.

**Solidarioa**

Arrats elkartearen aldekoa.

**0 ilara**

Nahiz eta jaialdira ez joan, diru ekarpena egin nahi dutenentzat kontua ireki dute: ES5920 5506 1481 062183289.



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

# Torturaren aurkako eguna

Ohiko denez, otsailaren 13an ospatu zen torturaren aurkako eguna; eta herri honetan badu izenik torturak. Asko izan baitira torturatutako herritarrek. Hitzak berak badu horrelako gogortasun bat fonetika aldetik, baita esan nahi aldetik ere. Batik bat, errealitateari aplikatzerakoan, gogortasun fisikoa eta psikikoa darama berarekin. Pertsonari duintasun guztia kendu ohi dio eta, bere krudelkerian, pertsona objektu bilakatzen du. Edozer egin dakioken objektua, alegia.

Urtero, eguna iristen den heinean, halako egonezina sentitu ohi dut. Eta oraindik oroimena bizirik dugunok, komisaldegian jasandako tortura fisiko eta psikikoak irudikatzen ditugu. Birtortura gisa bizi ohi dugu.

Torturatuen artean badira pertsona batzuk, hiltzeraino torturatu zituztenak. Asko dira, noski, baina nik beti gogora izan dut, eta bereziki egun horretan Joxe Arregi zizurkildarra. Krudelki torturatu eta torturapean hil zutena. Bere argazkiak izugarriak dira, sinestezinak. Antzekoak izan ziren Frankismo ondorengo garaietan, Anparo Arangoa leitzarrarenak. Argazki gogor haiek ere munduan zehar ibili ziren. Badakit epaibidean izan zirela baina beste kereila asko bezala, bazterrean geratu dira.

Testuinguru honetan, duela egun batzuk, “Non dago Mikel?” filma ikusteko aukera izan dut. Ana Merinok zuzenduta, eta Donostiako Zinemaldian estreinakoz eskaini zutena. Galdera hori egiten zen herrian, Mikel atxilotu eta Intxaurrondoko kuartelera eramanez. Eta Mikel Intxaurrondoko kartzelan zegoen, Galindo kapitaina edo jeneralaren esku. Hil berri den Galindoren esku hil zen,



Ion Arretxe eta Idoia Aierbe torturatuak Donostiako Altzan dagoen muralean. AIURRI

eta hil ondoren eskuindarrek goraipatu dute. Inongo zigorrik jasan gabe. Filmean Arretxe ageri da, Mikelekin batera atxilotuta eta hura ere tortura krudelak jasandakoa. Filmean Paco Etcheberria forensea aitortpena egiten agertzen da. Horrelako egoera batek familia inguruan sortzen duen sufrimendua garbi agertzen da. Herriak ez zuen sinesten bertsio ofiziala, zeinean esaten zen ihes egin zuela eta ibaian ito zela. Baita zera ere! Oraintsu agertu diren audioek garbi azaltzen dute poltsaren eraginez hil zela, bihotzekoak eman eta gero. Audio horien inguruan ezer gutxi agertu da komunikabideetan. Bitxia, baina ohizkoa. Horra hor garbi nork manipulatzeko duen errelatoa.

Filma bere gogortasunean oroimenaren aldeko dokumentu interesgarria da. Batetik Egia, memoria, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa exijitzeko. Bestetik, berriz, oroimen hori eta errelato hori belaunaldi berriei jakinarazteko. Herri honen sufrimendua zenbaterainokoa izan den eta kontzientzia har dezaten. Sufrimendu guztiak berdinak baitira, sufrimendua ezin daitekeelako sailkatu. Garai eta egoera hartan herriak ongi erantzun zuen; dokumentalean hori garbi agertzen da. Zoritzarrez, justizia ofizialaren bideak kasu hauetarako itxita daude. Eta okerragoa dena, erakunde publikoetatik ahaleginak egiten ari dira horrelako gertaerek gure herriaren

oroimenean lekuri izan ez dezaten. Mila adibide ditugu: Mikel Zabaltza, Joseba Arregi.... Horrelako kasuak ez dira oroimen inklusibo batean sartzen. Hor ere badago sailkapen moduko bat. Beraiena ez den errelato oro desagertarazi nahi dituzte.

Entzuna diot EITBko zuzendari berriak esana duela Altsasuko gazteei buruzko dokumentalaren antzekoak ez dituztela jada gehiago emango. Esan dezadan, bidenabar, gertaera haiek fikzio moduan eskaintzea interesgarria irudi zitzaidala. Etetearen arrazoiak? Zuzendariaren irudiko, horrelako dokumentalek polarizazioa sortzen dutela. Besteek, ofizialak, ez dute, nonbait, polarizazio hori sortzen. Nire irudiko, bizikidetzat landu eta lortu nahi badugu, derrigorrez onatu behar dira errelato guztiak. Eta ahal den neurrian sufrimendu guztiak onartu. Elkar ulertuz, benetako bizikidetzat lor dezagun. Eta hori, horrelako dokumental eta filmak eginez ere lortzen da. Batik bat, lehen esan bezala, bizikidetzat lortzeko, sufrimendu guztiekin enpatizatze eta denei memoria, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa eskaintzeko.

IRITZIA

UNAI ARBERAS ANDOAIN

# Nola iritsi gara honaino?

Nola iritsi gara puntu honetara? Urte luzez borroka gogorra izan da. Euskara debekatuta zegoen garaian. Jendeak izugarritzko lana egin zuen debekatuta zegoen garaian, euskara hizkuntza bezala ez galtzeko. 2021. urtera iritsi gara, inoiz baino errekurso gehiago, inoiz baino “hiztun” (jakitun?) gehiago, inoiz baino informazio gehiago eta zer nolako sentsazioa daukadan? Inoiz baino gutxiago egiten dela.

Jakinik gaur egun dagoen euskara hiztun edo jakitun kopurua, hezkuntza langile eta hiritar bezala atsekabetuta nago. Gazteen artean ez da ohikoa euskaraz egitea, nahiz eta denek izan komunikatzeko gaitasuna, hala diote. Are gutxiago, euskal hiztunen bat ez badago taldean.

Eskola mailan, hainbat urtetan esperientzia bildu ondoren, Euskara toki gehienetan, irakasgai bilakatu da. “Gaurkoan, euskara eta matematika jorratuko ditugu”. Eskerrak eskolan bakarrik den. Euskaraz egiteko, metodo komuna bilakatu da, egiten duenari saritzea, txalotzekoa balitz bezala. Ez daukat oso argi horrek zer transmititzen duen. Ez dakit estrategia oso egokia den.

Metodologia hizpide zela, polemika piztu zen orain dela gutxi. Norekin eta futbol jokalar batekin, nola ez? Noiz bilakatu da euskara “estrategia” hutsa? Nolatan utzi dugu euskara puntu horretaraino iristen? Hain gutxiarekin ohitu gara, poztu eta dena egin behar garela dirudiela. Euskarari falta zitzaion azken mespretxua. Telebista-programa batean euskara erasotua izan den arte, orduan defendatzen dugu, orduan aldarrikatzen dugu. Polemika ahazten denean, betiko martxan. Hurrengoa etorri arte.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**  
Etxez etxeko harpidetza-sistema.  
Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.  
Urnietan, 32 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea.  
20140, Andoain.  
Tel.: 943 300 732.  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
@aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.  
**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.  
**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.  
Whatsapp-a: 619 163 537.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:



# Izurritearen lehen urtean 1000 lagun kutsatu dira Andoainen; 500 Urnietan

**#2020KORONABIRUSA2021** Data hauetan, iaz, urrunekoa zirudien izurriteak bete-betean kolpatu zuen Euskal Herria. Martxoaren 10ean jakin zen birusak hildako lehen gipuzkoarra Andoaingo emakumezko bat izan zela. Gutxira iritsi zen erabateko konfinamendua

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Erakundeetatik zabaltzen dituzten datuetan irizpide bakarraz ez dagoen arren, zenbaki bat gora edo behera, pandemiaren lehen urtean milako kutsatuen langa gainditu da Andoainen. Eta Urnietan bostehundik gora dira. Zenbakiak bere horretan hotzak dira, baina ezin ukatu

biztanleongan izan duen eragina handia izan dela. Gizarte bizitza hankaz gora jarri zuen Koronabirusak, ekonomia kaltetuz eta ertzean bizi ziren lagunen egoera zaurgarriago bilakaturik. 2020ko martxoaren 13az geroztik beldurra jende askoren txertatu da, eta oro har ezjakintasun handia. Urtebeteko

epean txertoa aurkitu eta intzidentzia nabarmen jaisten hasi da, baina egoera lasaiagora eramango gaituen tasara iristea kosta egiten ari da. Are gehiago, hainbat tokitan birusa oldartzen hasi da. Andoainen eta Urnietan erabat itzaltzen ez den sugarraren parekoa da. Oraindik orain, aezin esan gaindituta dagoenik.

## Izurritearen lehen egun haiek

### Martxoak 10, asteartea

Covid-19k eragindako Gipuzkoako lehen biktima andoaindarra zela jakinarazi zen. 69 urteko emakumezkoa, eta Osakidetzak aurreratu zuenez, "aurretiaz gaixotasun gehiago zituen".

Udalak agerraldia egin zuen, lasaitasun mezua zabaltzeko. Haren senitartekoak joan zen igandean, martxoaren 7an, lehen urteurreneko meza ospatu zuten San Martin elizan.

Zetorrenari neurria hartzeko geunden oraindik. Osakidetzak orduko hartan adierazitako datua adierazgarria da, urte bat geroago irakurrita: Martxoaren 8tik 9ra 46 kasu gehiago antzeman ziren EAEn, koronabiruseko 144 kasu positibo erregistratzeraino. Gaurko egunez pozarren geundeke, datu apal horrekin. Haur txikiak jomugan hartu zituzten, birusaren zabaltzaile zirelakoan. Osakidetzaren oharra horrela jaso genuen Aiurrik: "37 C-ko temperatura badu edota arnasa hartzeko arazoak antzematen bazaizkio, haurra etxean uztea eskatu dute".

### Martxoak 12, osteguna

Ikastetxeak itxiko zituztela iragarri zuen Murga Sailburuak.

### Martxoak 14, larunbata

Alarma Egoera indarrean jarriko zuela iragarri zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek. Konfinamendu gogorrrari hasiera emateko lehen urratsa izan zen.

## Gorabehera handiak Gipuzkoan

Martxoaren 9an indarrean sartu zen araudi berrian bi berrikuntza nagusiak hauexek dira:

- "Erkidego barruan mugikortasuna ahalbideratzen da, inolako mugarik gabe".
- "Ezabatu egingo da 500etik gorako intzidentzia-tasa metatuaren erreferentzia, udalerriko murrizketak zehazteko".


Azken egunetan, ordea, intzidentzia tasa jaistea kosta egiten ari da. Eta zenbait eremutan igotzen ari da, gainera. Gorabehera horiek deigarriak zaizkio Urko Vallejo andoaindarri. Datuen inguruko azterketa interesgarriak egin ohi ditu Facebook-en sortu duen 'C-19 Analisia' gunean.

Azken zazpi egunetako intzidentzia tasa kontutan hartuta, Beterri-Buruntza eta Donostialdeko intzidentzia-tasa oso apala da. Aldiz, Goierri eta Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan bost aldiz handiagoa da.

Mugikortasunari ateak irekita, eremu ezberdinetako biztanleen artean kutsatzeko kezka ez da baztertu behar den aukera.

## COVID 19 - GIPUZKOAN

2021eko martxoaren 8an eguneratua



(\*) Azken 7 egunetako intzidentzia-tasa hamalau egunetara proiektatuta.



## ANALISIA

URKO VALLEJO ANDOAIN

## Bilbozentrismoa eta kafea denontzat

Eusko Jaurlaritzak udaz geroztik hartu dituen zenbait erabaki, eta hauek zein unetan hartu dituen ez zaizkit batere koherente iruditu. Orokorrean, Euskal Autonomi Erkidego guztiarentzat neurri berdinak ezarri ditu, nahiz eta aldi batetik bestera bakoitzean pandemiak izan duen intzidentzia nabarmen desberdina izan.

Uda partetik nabil Gipuzkoa, Andoain eta erreferentziatzat hartzen ditudan beste zenbait euskal udalerrietako kutsatuen datuak pilatzen. Ez naiz medikua, ez dut osasungintzan lana egiten, eta ez naiz, inolaz ere, pandemiatan aditu. Datuen 'friki'ztat hartzen dut nire burua, eta beste zenbaitetan beste alorretan egin dudana bezala, oraingoan kutsatuen datuak pilatu eta interpretatzen saiatu naiz. Datuen azterketa honetatik ondorioak atera ditut, komunikabideetan ematen dizkiguten konklusioetan akatsak topatu ditut, eta hasieran aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakitan kontraesanak antzeman ditut.

Azter ditzagun Eusko Jaurlaritzak udaz geroztik hartu dituen neurriak. Uztailaren bukaera aldera, intzidentzia-tasak gora egin zuen nabarmen Euskal Autonomi Erkidegoan. Orduan Eusko Jaurlaritzak hartu zuen neurri bakarrenetarikoa izan



LABiren bilera, aurreko astean. IREKIA

zen musukoaren erabilera derrigortzearena, eta hori nahikoa izan zen, abuztuan eta batez ere irailean intzidentzia-tasa leuntzeko.

Urrian pandemiak berriro gora egin zuen, baina Eusko Jaurlaritzak ez zituen murrizketa gogorrenak hartu Bizkaia 14 egunetako intzidentzia-tasan 500 ingurura iritsi zen arte. Ordurako Gipuzkoako intzidentzia-tasa 800ekoa zen 14 egunetara, eta 1000ra gerturatzen ari zen 7 egunetako intzidentzia-tasan (7 egunetako intzidentzia-tasa bigatik biderkatuta, 14 egunekoarekin erraz alderatu ahal izateko).

Urtarrilean Andoainen, beste hainbat udalerritan bezala, eremu gorrian sartu ginen, eta pandemiak gogor jo zuen berriro. Eusko Jaurlaritzak orduan, nire ustean, orain arte ezarri duen neurririk

egokienetarikoa hartu zuen: intzidentzia-tasa jakin batetik gora zeuden udalerriak konfinatzea. Horrela, udalerririk horietako bizilagunek ezin zuten beste udalerritakoak kutsatu, eta egoera hobean zeuden udalerritan neurri malguagoekin bizi ahal izan ziren.

Baina urtarrilaren 19an bezperako inzidentzia-tasak argitaratu zituen Eusko Jaurlaritzak, eta Bilbok 500eko tasa gainditu zuen. Hurrengo ostiralean Bilbo konfinatu behar zuten. Zer egin zuen orduan Eusko Jaurlaritzak? Euskal Autonomi Erkidegoko udalerririk guzti-guztiak konfinatu, noski. Andoainen, jada gure udalerrian konfinatuta geunden, baina pandemia egonkortzen hasia zen, olatu gandorrera iritsita; eta Gipuzkoan inzidentzia-tasa, oraindik, 400 ingurukoa zen.

Eta badakizue noiz erabaki duen Eusko Jaurlaritzak udal konfinamendua altxatzea? Bizkaian eta Bilbon intzidentzia-tasa 300 azpitik jaitsi den aste berean (LABI-k, Euskadira mugikortasuna berreskuratzeko finkatu zuen irizpidea). Gipuzkoan otsailak 19a geroztik ginen balio horren azpitik, eta Euskal Autonomi Erkidegoan otsailaren 24a geroztik, baina hori ez zen nahikoa izan, Eusko Jaurlaritzak berak finkatutako irizpideak jarraituz, funtsezko eskubidea den mugikortasuna berreskuratzeko. Ezin zuen LABI-k iragarrita zuen bilera aurreratu, egoera hobean zeuden eremuetan mugikortasuna ahalbideratzeko? Eta mugikortasuna berreskuratzeko intzidentzia-tasak 300 azpitik egon behar badu, zentzuzkoa al da irizpide hori betetzen ez duten udalerrietako biztanleek mugikortasuna berreskuratzeko? Ez al du horrek gainontzeko udalerrietako intzidentzia-tasan eraginik izango?

Kasualitate kontuak izango dira hauek guztiak? Beste indikadore batzuek eragindako erabakiak al dira? (gogoratu, nik bakarrik kutsatuenak jarraitzen ditudala). Agian bai, baina niri bi ideia datozkit burura: Bilbozentrismoa, eta kafea denontzat.

## Astez asteko garapena

Azken asteetan birusaren beherantzko joera eten egin da, eta intzidentzia pittin bat igo da.

## ANDOAIN

- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 73,39.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 100,08.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:** 11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 240,19.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.

## URNIETA

- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 144,95.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 499,28.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.





Uxue Botas andoaindarra da proiektuaren motorretako bat. AIURRI

# “Nabari da hiru emakumek idatzi dutela gidoia”

**UXUE BOTAS** "LARRUGORRITAN" TELESAILA

Gazteen problematikaren gainean hitz egiteko aukera luzatu nahi du telesailak. Diru-bilketa abiatu dute orain gutxi, lehen kapitulua grabatu ahal izateko

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Ali, Ena, Lara, Niko eta Mai. Nerabezaroa atzean utzi berritan, helduaroari gogor ekiteko asmoz dauden bost gazte dira, nor bere beldurrekin, galderekin zein desirekin. Hala, biluzi egingo ditu “Larrugorritan” telesailak; zentzu guztietan, baina, batez ere, metaforikoan. Izan ere, bost pertsonaien ezinegonak bat egingo dute gazteek gazteentzat sortutako ikus-entzunezkoan. Uxue Botas andoaindarra da proiektuaren motorretako bat. Bidea

hasi besterik ez dute egin, baina asmoa argia da: Euskal Herria larrugorritu nahi dute.

**Nondik dator proiektuaren ideia?**

Jone Arriola elgoibartarra da proiektuaren sortzailea, eta bere unibertsitateko lan bati eutsita sortu da “Larrugorritan”. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen EHUn, eta graduako 3. mailan “Females” deitutako proiektu bati ekin zion, baita jarraipena eman ere, unibertsitate titulua eskuratzeko ezinbestekoa den Gradu Amaierako

Lanean. Horiek horrela, jarraian, Tabakalerako “2deo” beka-deialdira aurkeztu zuen proposamena. Orotara, 99 proiektuk eman zuten izena, eta, soilik, zortzi hautatu zituzten, horietako bat, Jonerena. Ondorioz, aurre-ekoizpen fasea garatzeko 4.000€-ko diru-laguntza eskuratu zuen. Beraz, behin hori lortuta, nirekin eta Ane Nafarraterekin (beste zuzendari-laguntzailea eta gidoilaria) jarri zen harremanetan; lagunak gara, Erasmus programaren bidez ezagutu ge-

nuen elkar Norvegian. Dosierria pasa zigun eta lanari ekin genion, aurre-ekoizpenari. Beranduago, zortzi proiektu horietatik hiru aukeratu zituen “2-deok”, eta horri esker, “Larrugorritan” telesailaren proiektu-pilotoa filmatzeko aukera paratu zitzaigun begi-aurrean. Ilusio handiz jaso genuen albistea, zeren maila handiko egitasmoak baitzeuden tartean, eta gu esperientzia laburreko kideak gara. Izugarrizko aukera izan da “2deo”-ren diru-laguntza jasotzea, ez bakarrik babes ekonomikoagatik, baita aitortzagatik ere.

**Zein da zure ekarpena proiektuari?**

Orain arte, zuzendari-laguntzaile gisa aritu naiz. Figura horren helburua da, grabaketa uneari dagokionez, aktoreak zuzentzea; izan ere, zuzendari nagusiak, oro har, pantailatik bizi ohi du filmazio-prozesua. Baina kontua da gurean aktore-zuzendari bat izanen dela, alegia, berak koordinatuko du aktoreen lana. Hori dela eta, egun, Arte Departamentuko koordinatzailea naiz. Apur bat saila antolatzea da nire eginkizuna: lokalizazioak girotzen ditugu, eta *atrezzo*a prestatu, hots, kontaketa-estetika zaintzeaz arduratzen gara; esaterako, lurrak bustia egon behar badu, gure departamentuko kideen zeregina da lurra bustitzea. Bestalde, sare sozialak kudeatzen ditut, besteak beste, Instagram euskarrirako edukiak sortzen eta partekatzen aritu naiz, *community manager* lanean, hain zuzen ere.

**Gazteek gazteentzat zuzendutako telesaila dela diozue.**

Gazteei buruzko telesailak asko kontsumitzen ditugu, eta horietan agerian gelditzen da edukiaren zuzendaritza, adibidez, gizon heldu baten eskutik egiten denean; alegia, oro har, ez dute errealitatea islatzen. Beraz, argi izan dugu, uneoro, kontatu nahi dugun istorioa kontatzeko, jende gaztea egon behar dela proiektuaren atzean nahiz aurrean. Lan-taldea jende gazteak osatzen dugu, hasiberriek zein profesionalek. Bost protagonistetatik lau emakumeak dira, eta gure bizipen-pertsonaletan oinarritu gara telesaila ontzeko. Noski, fikzio-tik ere badauka, baina gure egunerokotasunaren problematikan oinarritu gara, eta horretarako, beharrezkoa ikusi dugu gazteek osatzea lantaldea.

**Horrez gain, ahalegindu zarete gehienbat, emakumeak izatea proiektuaren gidari.**

Lantalde teknikoa, gehienbat, emakumez osaturik egotea izan da hasieratik gure asmoa, istorioa genero-ikuspuntutik kontatzea dugulako helburu. Adibidez, nabari da hiru emakumek idatzi dutela gidoia. Ez da erraza; hala nola, *steadicam* delakoekin aritzen den emakume gutxi dago. Nolanahi ere, ahal den neurrian, saiatzen ari gara, gutxienez, sail bakoitzeko buruak emakumeak izaten.

**Bost protagonisten bidez murgilduko da ikuslea ‘Larrugorritan’ seriean. Zein gai landuko dituzue?**

Hamaika gai jorratuko dira telesailan. Alde batetik, festa giroan kokatuko ditugu pertsonaiak, eta, horrela, drogez mintzatzeko aukera izango dugu. Beste alde batetik, beren jarrerak izango ditugu hizpide, baita sexualitatea eta maitasuna ere. Finean, giza harremanen gaineko hausnarketa egiten du telesailak. Hala, hainbat motatako erlazioak landuko ditugu, familiar-tekoak, bikotekideenak, baita lagunena ere. Nork bere burarekin duen hartu-eman ere ardatz dugu: zaintza, traumak, sare sozialen erabilera, identitate arazoak... Finean, gazteek ditugun ardurak zein galderak dira, asko eta asko, oraindik, tabu gisa hartuak. Horrenbestez, proiektuaren helburua horrekin apurtzea da, horrelako gaiez libreki hitz egin ahal izateko: ikusleak telesailan ikusiko ditu emakumeak sexuaz aske hitz egiten, eta beren nahiak, lotsik gabe, lagunekin partekatzen.

**Egunerokotasuneko egoerak dituzue mintzagai. Hala, identifikatuta sentituko al dira ikusleak pertsonaien bizipenekin?**

Bai, hori da. Askotariko egoeretan kokatuko ditugu pertsonaiak, eta nork bere modura egingo die aurre horiei. Horrela, ikuslea ez da, soilik, pertsonaia jakin batekin identifikatuta sentituko, baizik eta egoera zehatz batean ikusiko dituen jarrerekin. Alegia, ikuslea ez da osotasunean islatuta ikusiko pertsonaia bakarrean; batzuetan, gertuago sentituko du Niko, esaterako, eta, beste batzuetan, ordea, Ena. Eta hori oso polita da, elkarrengandik oso ezberdina direlako pertsonaiak.

**Proiektuak sei atal ditu, baina, orain, lehenengoa grabatzea du-**




## "Larrugorritan" telesaileko protagonistak



**ENA, 21 URTE**  
JONE LASPIUR

Burugogorra eta misteriotsua, bere ekintzek besteengan eragina dute. Niko, bere anaia bikia, Enaren jarrera bortitza kontrolatzeko gai den bakarra da. Dirua nahi du etxetik alde egin eta independentzia lortzeko.




**NIKO, 21 URTE**  
UNAI ARRIETA

Euforikoa, irekia, saltsa guztietan dago sartuta. Ligatzearekin eta maitemintzearekin obsesionatuta dago. Baina gero praktikan kikil hutsa da. Enaren anaia bikia da eta bere arreba bere sostengu nagusia da.




**LARA, 21 URTE**  
ALAZNE ASTORGA

Pertsona heldua da, segurtasun askokoa, nahi duena lortzen duen horietakoa. Inork ez daki nola egiten duen, baina begiak itxi eta ireki batean ligatzen du. Ikasketak oso serio hartzen ditu, oso langilea da.



**ALI, 21 URTE**  
SARA NIETO

Gardena, aztoratua eta barregarria, burutik pasatzen zaion lehenengo gauza botatzen du. Segurtasuna dauka bere buruarengan eta bere inperfekzioak maite ditu. Klasean arreba-zentroa da.



**MAI, 21 URTE**  
AIORA ENPARANTZA

Azkarra, lagun ona eta oso kirolaria. Musika entzutea da bere pasioa. Ez zaio sexuaz hitz egitea gustatzen, gai hortaz paso egiten du. Kuadrillan askotan lotsatu egiten da gai horrekin.

### zue helburu. Horretarako jarri duzue *crowdfunding*-kanpaina martxan.

Itsulapikoa.eus atarian *crowdfunding*-a egiten ari gara, diru-laguntza bat jaso genuelako "Batera" kultur proiektuaren eskutik. Koronabirusak izugarri oztokatzen du grabaketa-lana. Izatez, filmazioa garestia bada, pentsa pandemia egoeran. Horregatik ekin genion diru-bilketari, babes ekonomikoa behar dugulako proiektu txukuna ateratzeko. Momentuz, jendearen erantzuna oso ona izaten ari da: ekuatorera iritsi gara berriki, eta 3.055€ lortu ditugu. Gure helburua gutxienez 3.500€-ra iristea da, eta oraindik pare bat aste ditugu aurretik.

### Zer egin behar du proiektua sustatu nahi duenak?

Itsulapikoa.eus platarforman sartu behar du eta ordain-sariak izango ditu aukeran babesa luzatu nahi digunak. Behin hori eginda, zenbateko ekarpena egin nahi duen aukeratu beharko du; emandako diru-kopuruaren arabera zenbait abantaila eskuratuko ditu. Inork arazorik izango balu, Bizum plataforma bidez ere egin lezake, gurekin harremanetan ipinita.

### "FINEAN, GIZA HARREMANEN GAINEKO HAUSNARKETA EGITEN DU TELESAILAK"

### Estreinaldiaren ostean, gainerako bostak grabatzeko adinako oihartzuna izatea espero al duzue?

Estreinaldia ez da publikoa izango, zeren ate asko ixten baitzaizkizu horrela, alegia, jendeak jada ikusia badu, ekoiztetxeak ez dira zurekin harremanetan jartzen. Lehen kapitulu apirilaren 5 eta 11 bitartean filmatuko dugu, eta estreinaldia maiatzaren izango da "2deo"-n (ateak itxita), baita ekainan ere, Gasteizen (publikoari irekia). Bestalde, beste emanaldi pribatu bat egingo dugu, diru-bilketan 30€-tik gorako laguntza eman diguten kideentzat. Oraindik ez dakigu non egingo den, erabakitzeke dago hori. Tabakalera-ko aurkezpenara ekoiztetxe handiko kideak eta kate publiko buruak joango dira. Ondorioz, gure nahia eta desira da estreinaldi horretara bertaratzen den norbaitekin akordio batera iristea, gainerako kapituluak grabatu ahal izateko. Uste dut lortuko dugula telesaila burutzeko adinako laguntza. Baikor gaude.

### Eta gogotsu, ezta?

Izugarritzko ilusioa ematen digu euskal fikzioan gure aletxoak jartzeak. Ikus-entzunezkoak asko

kontsumitzen ditugu, eta horietan identifikaturik ikusi nahi gara. Pertsonalki, proiektuak izugarri motibatzen nau, besteak beste, gazteetatik gazteentzat kontatutako euskal fikzioan dagoen hutsunea betetzen duelako. Bestalde, nabarmenezkoa da azken hilabeteotan euskal fikzioa sustatzeko ahalegina izugarritzkoa izan dela. Aurrerapauso handia da hori.

### Zer eman dizu proiektuan parte hartzeak?

Goxoki bat izan zen unibertsi-tate-ikasketak bukatu berritan. Oso galduta nengoen, eta nahiko argi nuen master bat egiteko aukera. Baina Jonek proposamena luzatu zidan, eta ezbaierik gabe eutsi nion erronkari. Mundu profesionalean lagunekin lanean aritzea izugarria da. Oso ondo ezagutzen dugu elkar, eta konplizitate horrek gure mesedetan jotzen du. Gainera, erraza izan da arlo pertsonala profesionaletik bereiztea; hasieratik, argi izan dugu profesionalak izan behar garela, emaitza txukuna izateko, eta argi ikusteko buru-belarri ari garela lanean. Horrenbestez, espero dugu proiektua gauzatzea; oso gogotsu gaude, ikasteko eta lan egiteko.

### Eta ikusleari, zer emango dio 'Larrugorritan' telesailak?

Egun, bizi dugun egoera kontuan harturik, bizitasuna emango dio ikusleari. Gaztetasunari estuki lotutako errebeldia sentitzeko aukera luzatzen du "Larrugorritan" telesailak.

## Finantziatorako laguntza eske

### Zer da Larrugorritan?

Gazteei zuzenduta dagoen euskarazko fikziozko serie bat da. Bost kidez osatutako kuadrilla batek emakumeen eta gizonezkoen estereotipo eta mitoekin apurtuko du. Euskal gazteok egunerokotasunean bizi ditugun gatazkak eta zalantzak jorratuko dira seriean: drogak, sexua, identitate-arazoak, traumak, sare sozialak, maitasuna eta adiskidetasuna.

### Gure helburua

Gaztaroan kokatzen den saila izango da Larrugorritan. Istorio hau gure gaztetasunetik kontatu nahi dugu, badakigulako gure egunerokotasunean bizi ditugun egoerekin gazte asko identifikatuta senti daitezkeela. Protagonistek hogeitaz inguru dituzte; beraz, hemezortzi urtetik gorako gazteengana hurbildu nahi dugu seriea. Halaber, emakumeek izugarritzko garrantzia dute istorio guztian zehar, eta gure helburu nagusienetako bat neska gazteak protagonistekin identifikatuta sentitzea da.

### Itsulapikoa.eus

Webgune horretan crowdfunding bidez laguntza eman daiteke, 5 eurotik gorako ekarpenak eginez.

## JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez eta jaso eguneko albiste nagusiak.







Urnieta Quel Abogados taldea. UKE

## Bi partida jarraian irabazita, lidergotzan daude urnietarrak

**ESKUBALOIA** Emakumezkoen senior taldeak etxean jokatu zuen azken partida, Donostiako Egiaren aurka (21-9)

### Erredakzioa URNIETA

Iazko denboraldiarekin alderatuz gero, donostiarrek taldea nabarmen eraberritu dute. Jokalari gazte asko dituzte, helburua etorkizunera begira jarrita. Urnietako partidaren, etxe-koek defentsa sendoa erakutsi zuten eta horren aurrean aurkariak ezer gutxi egiteko aukera eduki zuten. Erasoan, berriz, ez ziren oso fin aritu, akats ugari egin baitzituzten. Eta hala eta guztiz ere markagailuan alde handia ateratzea lortu zuten.

Larunbatean Erreterian partida berria jokatu dute, Ereintzaren aurka. Iluntzeko 19:00tan hasiko da.

### Jubenil mailako neskak

Senior mailakoak Ereintzaren aurka lehiatuko dira, asteburu honetan. Aurrekoan, aldiz, jubencilak izan ziren Erreterekoaren aurka aritu zirenak.

Gazteen arteko partidaren garaipena Ereintzarentzat izan zen (31-36). Gorritxoak gogor borrokatu zuten arren, Ereintza taldeak defentsan eta erasoan sendoa dela erakutsi zuen. Partidaren lehen zatia oso parekatua izan zen, baina minutuek aurrera egin ahala balantza aurkariaren alde jartzen hasi zen.

Larunbat honetan jubencil mailako neskek etxean jokatu dute, Hernaniren aurka. Partida goizeko 10:00tan hasiko da.

### Jubenil mailako mutilak

Gizonezkoen jubencil taldeak garaipen garbia eskuratu zuen Usurbilen aurka (38-15). Lehen bi partidak irabazita, sailkapenaren gaikaldean daude. Asteburu honetan atsedena izango dute.

Leizaran taldekoek igandean jokatu dute Hernanin, 12:00tan hasiko den partidaren.



Urnieta eskubaloia. UKE

## Kirol taldeak, martxoaren zortziarekin bat



Andoingo Euskalduna. EUSKALDUNA



Andoingo eskubaloia taldea. LEIZARAN



Tropela Donostia inguruetan, junior mailako proban. MARTINEARLY

## Kadete mailakoak pistan aritu ziren, lehen aldiz

**TXIRRINDULARITZA** Jubencil mailakoek eta kadete mailakoek denboraldiari hasiera eman zioten, aurreko asteburuan

Erorketak, zuluak... gorabehera handiko lasterketa izan zen jubencil mailakoentzat.

### Jubenilak. Egia | 21.03.07

1. Nikolas Alustiza (Bellota)
2. Unax Iztueta (Ampo)
3. Aritz Vizcy (Lizarte)
28. Xabat Alonso (Andoain)
59. Mikel Goikoetxea (Andoain)
64. Iker Atxaga Robles (Andoain)

### Kadeteak. Tafalla | 21.03.06

Markel Etxarrik eta Izaro Zurriarainek, lehen aldiz, pistan lehiatzeko aukera izan zuten. Tafallan lau proba ezberdin egin zituzten: Scrach-eko buruzburukoa, 200 metrokoa, eliminazio-ko proba eta bukatzeko puntuazioa. 200 metrokoan aritu ziren ondoen, Izarok Andoingo.eus webgunean adierazi duenez.



Markel Etxarri. IRATXE TEJEDOR



Intza Navarro. IRATXE TEJEDOR

## Urkizu eta Frutos maila onean, 'TCT Nuevo Baztan' lasterketan

**MOTORRA** Madril aldeko lasterketan bigarren sailkatu ziren Kobe kopan, eta hirugarren lehen klasean

### Erredakzioa ANDOAIN

Madrilko Toyota Kobe etxeak antolatzen du lehiaketa. Sei probatan banatzen da, lurralde ezberdinetan egiten dena: Madril, Murtzia edota Galizia, beste batzuren artean.

Lehen lasterketa Madrilgo Nuevo Baztan herrian egin zen, joan zen larunbatean. Ibilgailu guztiek ezaugarri berdinak eduki behar dituzte, eta kasu honetan Toyota Aygo ibilgailuarekin aritu ziren lehen. Entrenamen-

du bakarra egiteko aukera zegoen, eta beraz, ezinbestekoa da gidariaren eta laguntzailearen arteko koordinazioa ona izatea. Debora Frutos gidari laguntzailearen hitzetan: "Oso emaitza onak lortu ditugu, lan handia egin dugunaren seinale". Taldearen eta mekanikoen laguntza ezinbestekoa izan da. Haiekin batera Jokin Zendoia, Julen Corrochano eta Eneko Lazkoz aipatu behar dira. Proba berria apirilean izango da, Murtzia aldeko Lorca hirian.



Julen Corrochano, Debora Frutos, Jokin Urkizu, Jokin Zendoia eta Eneko Lazkoz.



# Goi mailako lasterketa

**TXIRRINDULARITZA** Igande eguerdian, Andoaindik eta Urnietatik gertu igaroko da Aiztondo Klasika. Afizionatu mailako proba da, Espainiako Koparako baliagarria. Profesional mailako ateetan dauden gazteak gertutik ikusteko aukera bikaina da

## Erredakzioa ANDOAIN

Mugikortasuna zabaltzearekin batera, mugakide ez diren udal-errietara jotzeko aukera dago. Txirrinduzaleek Aduna aldera gerturatzeko aukera dute, bertatik sei aldiz pasako baitira. Afizionatu mailako lasterketa gorena da, maila handiko kirolariak bertatik bertara ikusteko aukera polita. Helmuga ez da askoz urrutiago izango, Zizurkilgo Pasusen hain zuzen. Egur-diko 11.45etik aurrera Adunako gainetik sei aldiz igaroko dira. Probaren garapena ikusteko aukera paregabea da. Aste hauetan txirrindulariak ikusi ditugu ibilbidea ikuskatzen. Probaren garrantziaren adierazgarri da, hori. Iazkoa bertan behera geratu zen, izurriteagatik.



Aduna, Alkiza, Asteasu, Zizurkil eta Villabona aldetik ibiliko dira. AIZTONDO

Baina aurtengoan lasterketari eustea lortu ahal izan da. Xabier Usabiaga eta Aiztondo aldeko txirrinduzale lagun talde

handi bati esker aterako da proba aurrera. Bertatik bertara ikustea onena. Eta, bestela, aiztondoklasika.eus gunearen bidez.

# Eskarmentua hartzeko garaia da

**PILOTA** Aste hauetako prestaketa etorkizunean lehiakor aritzeko ikasgaia izango da Nora Mendizabalentzat



Nora Mendizabal. EITB

## Erredakzioa ANDOAIN

Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendi maila handiko pilotariak dira, gaur gaurkoz txapelketa eskuratzeko faborito nagusiak. Andrea Aldaregiak eta Nora Mendizabal andoaindarrak ezin izan zuten ia ezer egin, eta azken emaitza oso adierazgarria da: 22-1.

Lehiakor izateko tarte iritsiko zaio Mendizabali. Andoni Alvarez bere prestatzaile izandakoak mezu polita idatzi zuen, sare sozialetan: "Partida zaila zenuen Nora eta emaitza uste baina gogorragoa izan da baina horrelako egunak ikasketa prozesuaren parte dira. Jakin ezazu andoaindarrak zurekin gaudela".

# SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean  
Martxoaren 28an, 12:00tan

Sarrerak salgai:  
Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats **6€**

**Eli Pagola**  
**Alaia Martin**  
**Aitor Mendiluze**

**Iker Zubeldia**  
**Andoni Egaña**  
**Maialen Lujanbio**

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

**OHARRA:**  
Emanaldia auditorioan izango da. Segurtasun neurriak hartuko dira.

ANTOLATZAILEAK

**Elhuria Sahara**  
E.T.C.E. de Ingenieros de Teatros

**PIRATUA**  
MUSEO DE LA MÚSICA

LAGUNTZAILEAK

**AA**

**AIURRI**

**BAKORRI**

**BAKORRI**

**KOOPMUSIK**



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 11

**URNIETA Lehiaketa**

Antia literatur lehiaketa. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea. Haur, gazte eta helduen mailakoa da. **Epea: Martxoak 12. Sarobe.**

**URNIETA Erakusketa**

Martxoaren 18ra arte ikusgai dago "Emakumeak kirolari" erakusketa, Iñaki Bergararen eskutik. **Lekaio.**

**ANDOAIN Erakusketak**

Algodonerako emakumeei eskainitakoa, Fanny Alonsoren eskutik. **Ohiko ordutegia, Bastero.**

"Emakume famatuak".  
**Gazte Lokala.**

**ANDOAIN Antzerkia**

Aitziber Garmendia: "Txanogorritxotik otso emera".  
**19:00, Bastero.**

**URNIETA Ikuskizuna**

Lizaso, Gurrutxaga eta Pagadi hirukotearen saioa, Saroben. Aurrikusi zitekeenez, sarrerak agortu dira. **Sarrerak agortu dira. Sarobe.**

## OSTIRALA 12

**ANDOAIN Diaporama**

Amaia Armendariz: "Emakume gazte bidaia-irakurketa".  
**18:00, Bastero.**

**ANDOAIN Ikuskizuna**

"Emakumearen oihua" flamenko ikuskizuna.  
**19:00, Bastero.**

## LARUNBATA 13

**ANDOAIN Tailerra**

Txapa tailerra.  
**10:00-13:00, Ludoteka.**

## IGANDEA 14

**ANDOAIN Haur antzerkia**

"Kotondarrak", Anita Maravillas konpainiaren eskutik.  
**17:00, Bastero.**



Aitziber Garmendia aktorea.

**ANDOAIN "Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio)"**

Aitziber Garmendiak bizitza ematen dio protagonista nagusiarri. Kepa Errastik euskarara moldatu duen Marta González de Vegaren jatorrizko testu barregarria da. "Sexu guztietarako ikuskizuna! Izan ere, maitasunean denok gara patetikoak!", dio sinopsiak.

**Martxoak 11, osteguna. 19:00 Bastero Kulturunea.**



Odol-ematea Urnietan, artxiboko irudian. AIURRI

**URNIETA Odol-emaileak**

Txanda alde aurretik hartu behar da. Odola eman nahi duten pertsonen ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute: 943 00 78 85. Katarroa, mukiak edo ezula bezalako sintomak dituztenek ezingo dute odola eman. **Martxoak 16, asteartea. 16:30etik aurrera Lekaio Kultur Etxean.**

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Helduentzat:

**Entre nosotras**

Lar., 13. 19:00.

Ig., 14. 19:00.

Astel., 15. 19:00.

Haurrentzat:

**Raya y el último dragón**

Marx. 19-21: 16:30.

**Non dago Mikel?**

Ostirala, 19: 19:00.

**Ez, eskerrik asko!**

Marxoak 23: 19:00.



## SINOPSISIA

**Entre nosotras**

**Zuzendaria:** Filippo Meneghetti. **Aktoreak:** Barbara Sukowa, Martine Chevallier, Léa Drucker, Jérôme Varanfrain, Hervé Sogne, Eugénie Anselin... **Herrialdea:** Frantzia (2019). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Erromantikoa, komedia. **Iraupena:** 95 min.

## Nina eta Madeleine bizilagunak

Erretiroa hartuta bizi diren bi emakume dira Nina eta Madeleine. Bizilagunak izateaz gain, urteak dira elkar maiteminduta daudela. Gizartearen aurrean soilik

bizilagunak badira ere, etxe batean eta bestean elkarri adierazten diote maitasuna. Egunerokoan ezustekoa emango da. Filma sari onenetan lehiatu da.

## SINOPSISIA

**La boda de Rosa**

**Zuzendaria:** Iciar Bollain. **Aktoreak:** Candela Peña, Sergi López, Nathalie Poza, Ramón Barea. **Herrialdea:** Espainia (2020). **Generoa:** Komedia, drama. **Eguna:** Martxoak 16, asteartea. 18:30.

## Martxoaren 8ko egitarauaren baitan

Rosa 45 urte betetzear da, eta bere bizitza bazterrean utzi eta bizimodu berri bati ekin nahi

dio. Baina bere aitak, bere anaiek eta bere alabak bestelako planak dituzte.





Udaberrian eta udazkenean kanpaina bana abiatzen dute, euskara ardatz hartuta. ERRIGORA

## Abian da Errigora ekimenaren udaberriko kanpaina

"Nafar hegoaldeko uza eskutik eskura" kanpainaren edizio berria martxoaren 24ra arte martxan izango da

### Erredakzioa ANDOAIN

Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak eska litezke. Oliba bost litroko bidoietan banatzen da eta kontserbak hamabi ontziko sortetan, ideia urte osorako beste eskatzea da eta. Lau oliba-olio birjina estra mota daude auekan, horietatik bi ekologikoak. Kontserbei dagokienez, zainzuriak, piperrak, orburuak, kardua, menestra, barazkiak, potxak, tomateak, barazki-kremak, txitxirioak eta arroza eska daitezke. Eskaera egiteko epea martxoaren 24ra arte egongo da zabalik, eta banaketa apirillean izango da.

### Internet bidezko eskaera

Eskaerak Errigora.eus webgunean egin litezke martxoaren 4tik 24ra, eta produktuak jaso ahal izango dira toki ezberdinetan.

- Andoain: Aita Larramendi ikastolako bulegoetan eta AEK euskaltegian.
- Urnieta: apirilaren 30ean Hernaniko Gudarien plazan, 12:00etatik 19:30era.

### Ardatza, euskara nafarroan

Errigorak Nafarroako hegoaldea du ardatz. Bi kanpaina nagusi egiten dituzte urtero: udaberrikoa eta udazkenekoa. Lehenengoan, bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak Euskal Herri osoko etxeetara banatzen dituzte, bertako ekoizpen eta ekonomia sustatzeko asmoz. Hori da, hain zuzen, orain abian den kanpaina. Udazkenekoan, berriz, Nafarroako hegoaldeko produktuez osatutako saskiak milaka etxetara eramaten dituzte, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua eginez (saski bakoitzaren balioaren %25).

## Xaboi-tailerra Urnietan, AEKren eskutik

Martxoaren 16an, asteartearekin, xaboi-tailerra egingo dute Urnietako AEK euskaltegian. Bi ordu inguruko saioa izango da, 18:00etan hasita, eta bertan xaboiak nola egin ikasiko dute, Bene Rodriguez euskaltegioko ikaslearen eskutik. Saioa doakoa izango da.



LOVG



AIURRI

## Egunean Behineko irabazlea

Andoain bizi den "Miren" lehiakidea izan da bosgarren asteko zozketako irabazlea. "Txuruskita" k eraman zuen lehen saria (Mizpiradi), "Lupita" k bigarren (Zabala), "Miren" ek hirugarrena (Gaztañaga) eta "Artxi" izan zen laugarrena (Aburuza). Seigarren astea martxan dago.

## BERTSOA

### BEÑAT BELOKI

*Ia urtea pasatu degu  
bateko eta besteko  
iada askorik etzaigu falta  
gure barruak lehertzeko  
beti presaka ibiltzen gera  
hamarretan iristeko  
iada guztiok jarriak gaude  
frantzes askoren antzeko  
askatasunik ez daukagu  
nahi deguna egiteko*

Doinua:

Aita izena kanta behararak.

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN

**Gorka eta Anne**

Ongi etorri

Gorka eta Anne lehengusuak otsailean jaio ziren. Koadrila polita ari gara osatzen. Maite zaituztegu. Etxekoak. Andoain



ANDOAIN

**Iker Miguez Bellón**  
Zorionak Iker!! Aurten 9 urte betetzen dituzu. Segi beti bezain alai eta pozik. Asko maite zaitugu. Etxekoak.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

**Larunbata 13, igandea 14**

Diaz: Kale Nagusia, 19.

943 592 057. Andoain.

### URNIETA

**Larunbata 13, igandea 14**

Aizpuru: Latxunbe berri, 11.

943 336 077. Hernani.

## ODOL-EMAILEAK



### URNIETA

**Martxoak 16, asteartea**

Lekaion, 16:30etik aurrera.

Odola eman nahi duten pertsonak deitu beharko dute txanda hartzeko: 943 00 78 85.



- **Aste bakoitzeko sagardo kaxa bana zozkatuko da.**
- **5 aste, 5 irabazle: Txuruskita (Mizpiradi), Lupita (Zabala), Miren (Gaztañaga), Artxi (Aburuza), Miren (Oianume).**





Egia, justizia eta erreparazioaren aldeko murla Donostiako Altza auzoko plazan. AIURRI

# "Non dago Mikel?"

Mikel Zabaltza nafarraren kasuaren dokumentala aurkeztearekin batera, Guardia Zibilen eskuetan hil zela adierazten den polizien arteko audio mezua zabaldu da. Zeresan handia eman du, tortura praktikak lehen lerrora ekarri

**Xabier Lasa** ANDOAIN

"Non dago Mikel?" joan zen otsailaren 26an estreinatu zuten zinema aretotan, eta arrakasta itzela ezagutu du geroztik. Bide batez, torturaren gai arantzatsua iritzi publikoaren lehen lerrora ekarri dute.

Aski ezaguna da 1985ean euskal herritarrengan aparteko zirrara eragin zuen kasua. Hari buruz egin den "Non dago Mikel?" dokumentalaren sinopsiak berriro ekartzen die gogora kasua, garai hartan bizi ziren hainbat belaunaldi batik, baina baita ere gazteagoi: "1985. Guardia Zibila atxilotu ondoren, Mikel desagertua dago. Eta bizirik aurkitzeko esperantza ahuldu ahala, Euskal Herriko kaleetan oihu bat adituko da gero eta ozenago: Non dago Mikel?"

Amaia Merino eta Miguel Angel Llamas zinemagileak dira

bere zuzendariak, eta Donostian 1985eko azaroan atxilotutako Mikel Zabaltza Donostiako hiribusetako gidariaren eta beste bost gazteen ibilbidea kontatzen du. Horietatik, bost aske utzi zituzten; Zabaltza, baina, handik egun batzuetara hilik agertu zen Bidasoako ibaian. Ihes egin ostean ito egin zenaren bertsioa zabaldu zuten Intxaurrendoko kuarteleko zuzendariak zein Barrionuevo barne ministroak.

Dokumentalak, Zabaltzaren biloben begietatik berritzen ditu gertakariak, ikuspuntu gizatiar eta hunkigarria erantsiz kroni-

**MARTXOAREN 19AN  
DOKUMENTALA  
BASTERON  
ESKANIKO DUTE,  
19:00TAN HASITA**

kari. Besteak beste, Zabaltzarekin batera atxilotutako bik Jon Arretxek eta Idoia Aierbek, tortura latzen kontakizuna egin dute, eta Orbaizetako Zabaltzaren amaren zein arreberen testigantzak ere biltzen ditu.

Ikus-entzunezkoa ez ezik, beste hainbat albiste kateatu dira azken asteetan tortura jomuga dutenak, debatea sekula iritsi ez zen eremuetara zabalduz. Eta horrekin batera eskaerak gehitu egin dira, etorkizunean ikertzeko eta justizia ezartzeko. Izan ere, hamarkadetan Euskal Herrian bizi izan den indarkeriazko testuinguruan, torturarena izan daiteke ezkutuenen jarraitzen duena giza eskubideen urraketen arloan, oraindik ere; ofizialki gutxienez ikertu eta aitortu den gaia da. Euskal Herrian gaia maiz harrotu eta plazaratu izan bada ere, tabutzat edo ezkutatu

beharrekotzat izan da estatu aparatuetan hamarkada luzeetan, bai klase politikoaren zein gainerako estatu aparatu zein edo komunikabide handien aldetik.

## Torturari buruzko albisteak, kateatuta

Urtarrilaren 18an, Europako Giza Eskubideen Epaitegiak Espainia hamaikagarren aldiz zigortu zuen, atxilotuei eragindako tortura salaketak ez ikeritzeagatik; horietatik bostek Marlaska epaile instruktore ohia eta egun barne ministroa dute jomuga. Otsailaren 22an eta 23an, Alberto Perote CESIDeko koronel eta zerbitzu sekretuetako buruaren eta Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarrizketa-grabazioak eman ziren ezagutzera; bertan aitortzen dute Zabaltza torturen eraginez hil zela, eta Lasa eta Zabala lurperatuko zituzten zuloak eginarazi eta buruan bi tiro emanda hil zituztela. Azken finean, aditzera ematen dute sistematikoa zela torturaren aplikazioa Intxaurrendon.

Otsailaren 26an Madrilen dokumentalaren estreinaldian Pablo Iglesias Espainiko Gobernuko presidente-ordea eta Irene Montero Berdintasun ministroa izan ziren, eta lehenak sare sozialetan zabaldu zuen txioa deigarria egin zitzaion askori, gobernu kide batek idatzia zen heinean: "Demokrazia defendatzea geure historiaren alderik ilunenari begiratzea ere bada: torturak eta estatu terrorismoa. *Non dago Mikel?* ikusi genuen atzo. Zorionak ezinbesteko dokumentu hori egin dutenei".

Martxoaren 1ean, Nafarroako legebiltzarrek, aho batez, Zabaltza torturen ondorioz hil zutela frogatzen duten audioak ikertzeko eskatu zuen. Bestalde, urtea


## Martxoaren 19an Basteron ikusgai



Dokumentalaren kartela.

Euskal Herri osoan barrena aurkeztzen ari dira dokumentala, eta Andoainera datorren astean iritsiko da. Iluntzeko 19:00tan eskainiko dute, Bastero Kulturgunean.

hasi zenetik, Marlaska barne ministroari maiz interpelatu zaio Espainiako Kongresuan. Tortura kasuen eta beraren aurkako Europako bost sententzien gainean. Jada 2020ko martxoan, Marlaskak adierazi zuen 1978az geroztik ez dela torturatzen eta egia bakarra judiziala dela. Martxoaren 2an, berriz, Dolores Delgado estatuko fiskal nagusiari ikerketak burutzeko eskatu zioten, eta horretarako, Jaurlaritzaren aginduz Etxeberria forentseak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak 2017an argitaratu zuten txostena aipatu zuten, zeinak 4.200 tortura kasu baieztatzen zituen.



Zabaltzaren senideak, aspaldiko argazkiei begira. IZAR FILMS